

# **GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN HONDAR-FRAKZIOAREN ISURKETAK TRATATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOAK**

## **AURKIBIDEA**

1	LEHIAKETAREN XEDEA .....	- 2 -
2	HELBURUA .....	- 2 -
3	MATERIALA .....	- 2 -
4	DESKARGAK EGITEKO ORDUTEGIA.....	- 2 -
5	ZERBITZUAREN KUDEAKETA. ....	- 2 -
5.1	MATERIALA HELMUGAN JASOTZEA .....	- 2 -
6	MEMORIA TEKNIKOA .....	- 3 -
6.1	INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA .....	- 3 -
7	LANGILEAK.....	- 3 -
8	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.....	- 4 -
9	EKIPO MUGIKORRAK .....	- 5 -
10	KONTROL-SISTEMAK.....	- 5 -
11	KONTROL-SISTEMAK.....	- 6 -

## **1 LEHIAKETAREN XEDEA**

Honako baldintza tekniko hauen xedea da Gipuzkoako hiri-hondakinen hondar-frakzioaren isurketak tratatzeko zerbitzua teknikoki deskribatzea.

## **2 HELBURUA**

Honako lehiaketa honen helburua da hondar-frakzioa kudeatzea zaborren azken helmugan, zaborra deuseztatuz, indarrean dagoen legeriaren arabera.

## **3 MATERIALA**

Etxebizitza partikular, saltoki, bulego eta zerbitzuetan sortutako hiri- edo udal-hondakinak tratatuko dira, eta, halaber, arriskutsuztat hartzen ez direnak eta, zaborraren izaera edo osaera kontuan izanda, aipaturiko leku edo jardueretan sortzen diren zabortzat jo daitezkeenak. Hiri-hondakintzat hartzen dira industria, saltoki eta erakundeen hondakinak, baldin eta hiri-hondakintzat jo badaitezke.

Halaber, hiri-hondakintzat hartuko dira honako hondakin hauek:

Bide publiko, berdegune, aisia-eremu eta hondartzak garbitzean sortutako hondakinak.

Hildako etxeko animaliak, altzariak, tresnak eta ibilgailu abandonatuak.

Etxebizitzetako eraikuntza-lan txikietan eta konponketetan sortutako hondakin eta obra-hondakinak.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Hondakin Kontsortzioak izango du ahalmena honako arau honetan jasotzen den hiri- edo udal-hondakinen kontzeptua interpretatzeko, baldin eta zalantzak sortzen badira hondakin mota jakin bat horrelako hondakintzat hartzeko, betiere, 7/2008 Foru Arauan zehazturiko irizpideak betez eta kontuan izanik Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen Hiri Hondakinak Kudeatzeko Sistema Bateratuak hondakinei buruz egina duen zenbaketa historikoa.

## **4 DESKARGAK EGITEKO ORDUTEGIA**

Zaborren helmugako instalazioak, gutxienez, egun eta ordu hauetan jaso beharko ditu GHKk ekarritako hondakinak: astelehenetik larunbatera, 7:00etatik 17:00tara, jai-egunak barne. Igandetan, 1:00etik 14:00era jaso beharko ditu hondakinak.

## **5 ZERBITZUAREN KUDEAKETA.**

### *5.1 MATERIALA HELMUGAN JASOTZEA.*

GHKk garraiatuko du zaborra edo hartarako kontratatutako enpresak. Helmugako instalazioko baskulan bi aldiz pisatu beharko da kamioia: kargatuta sartzean eta deskargatu ondoren. Karga garbitzat hartuko da bi pisaldi horien emaitza. Baskulan,

pisaldien bi tiket egingo dira: tiket bat garraiolariak sinatuko du, eta esleipendunaren instalazioan utziko da, hilabete bukaeran fakturatu beharreko tona-kopurua justifikatzeko. Beste tiketa, berriz, garraiolariari emango zaio, eta hark GHKri.

Helmugako instalazioak garraiatzean metatutako zaborra jaso beharko du.

Esleipendunaren tratamendu-instalazioetan zaborra deskargatu bezain laster hasi beharko da prozesatzen.

## 5.2 ZEHAZPEN TEKNIKOAK

Kontratua sinatu aurretik, kontratistak erakutsi beharko du LER 200301, 200302 eta 200303 kodea duten hondakinak tratatzeko gaitasuna egiaztatzen duten administrazio-baimenak dituela.

## 6 MEMORIA TEKNIKOA

Lizitatuzaileek aurkeztu beharreko memoria teknikoan, honako atal honetan aipatzen diren alderdiak jaso beharko dira gutxienez, eta, beraz, kontratu honen oinarri diren Administrazio Baldintza Bereziak eta Baldintza Teknikoetan jasotako zehazpenak betetzen direla adierazi beharko da, aurkeztutako eskaintzaren egokitasuna ahalik eta ondoen justifikatu eta deskribatzeko.

Segidan adierazten den egitura izan beharko du informazio horrek.

### 6.1 INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA

Instalazioan egiten den prozesuaren deskribapen orokorra egin behar da. Alderdi hauek azaldu behar dira:

- materiala nola jasotzen den (baskula, sarbide-kontrola)
- materiala nola deskargatzen eta prozesatzen den

## 7 LANGILEAK

Esleipendunak beti izan beharko du zerbitzua emateko behar den langile-kopurua, Baldintza Tekniko hauetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako ildo eta zehazpenekin bat.

Esleipendunak une oro izan beharko ditu behar diren giza baliabideak, bai kontratuaren xedea modu eraginkorrean betetzeko, bai gaixotasun- edo istripu-bajak, baimenak, sindikatu-etako jarduera, oporrak nahiz aurreikusitako gabeko bajak edo absentismo-kasuak betetzeko.

Zerbitzuaren arduradun nagusiak gaitasun nahikoa izan beharko du kontratuarekin lotutako alor guztiei buruzko erabakiak hartzeko eta zerbitzua antolatu eta gainbegiratzeko. Hura ez dagoenerako (oporrak, bajak, bidaiak eta abar direla eta),

beti egon beharko du kontratatutako lanak koordinatu eta kontrolatuko dituen arduradun tekniko batek.

Lizitatzailleek organigrama hierarkiko-funtzional bat aurkeztu beharko dute, eta, organigrama horretan, argi adierazi beharko dituzte atal honetan adierazitako giza baliabideen erantzukizun-mailak.

GHKk ez du harreman juridiko, lan-arloko harreman edo antzekorik izango enpresa esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean ez hura amaitzean. Beraz, enpresa esleipendunaren kontura izango da kontratu hau iraungitzean sortutako obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun oro.

GHKk merkataritza-harremana izango du esleipendunarekin. Hala, kanon edo tasa bat ordainduko dio isuritako tonako, zerbitzua ematearen truke. Ez da beste inolako harremanik izango enpresa esleipendunarekin eta hango langileekin.

Langileen Gizarte Segurantzza, lan-istripuak eta PFEZa direla-eta dituen obligazioak nahiz soldaten eta ordainsarien alorrekoak bete beharko ditu enpresa esleipendunak.

## **8 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA**

Enpresa esleipendunak honako arau hauek bete beharko ditu: 1995eko azaroaren 8ko Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legea (1995eko azaroaren 10eko BOE, 269. zk.), 1997ko urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudia onartzen duena (1997ko urtarrilaren 31ko BOE, 27. zk.) eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzko gainerako legeria.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak (GHK) egoki deritzon prebentzioaren arloko dokumentazio oro eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari (GHKk eramandako hondakina tratatzeko prozesuari dagokion makineriarekin nahiz langileen prebentzio-, segurtasun- eta higiene-alderdiekin zerikusia duen dokumentazio oro).

Hortaz, enpresa esleipendunak betebeharrak hauek izango ditu:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Laneko arriskuak prebenitzea, hartarako behar diren neurri guztiak hartuz.
- Lan-arriskuak ebaluatzea.
- Prebentzio-lana planifikatzea, arriskuen ebaluazioan oinarrituta.
- Laneko baliabideek langileen segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.
- Langileek egin beharreko lanari egokitutako babes-bitartekoak ematea, baldin eta arriskuak behar adina murriztu edo saihestu ezin badira.
- Langileei informazio egokia ematea arriskuei buruz, babesteko har daitezkeen neurriei buruz eta larrialdietan hartu beharreko neurriei buruz.
- Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako gaietan, langileei galdetzea eta parte har dezaten bultzatzea.
- Langile bakoitzak prebentzio-arloko prestakuntza egokia izan dezan bermatzea.
- Langileak berehalako arrisku baten edo arrisku larri baten aurrean daudenean hartu beharreko neurriei buruzko informazioa ematea, eta, halako arriskurik badago, behar diren neurriak hartzea.
- Langileen osasunaren aldezkatu azterketa medikoak egitea.

- Langile bat edo batzuk izendatzea arrisku profesionalen prebentzioaz arduratzeko, prebentzio-zerbitzu bat sortzeko edo zerbitzu hori erakunde espezializatu bati emateko.
- Prebentzio-alorrean eskatutako dokumentazio oro GHKko prebentzio-zerbitzuei ematea, esleipendunak bere obligazioak betetzen dituela ziurtatzeko.

## **9 EKIPO MUGIKORRAK**

Esleipendunak behar diren baliabide material guztiak jarri beharko ditu tratamendu-instalazioan zerbitzua ondo emateko.

Zerbitzua betetzera bideratutako bitarteko materialen bidez, zerbitzu horiek bermatu beharko dira, une oro, eta nahikoa gaitasun izan beharko dute jarduera-plana garaiz betetzeko eta sor daitezkeen ustekabeko egoerei aurre egiteko.

Eskaintza egitean, zerbitzu guztiak emateko erabiliko den material mugikorra zehaztu behar dute lizitatuzaileek, eta argi eta garbi adierazi behar dute zein den zerbitzua emateko materiala eta zein erreserbako materiala, hau da, zerbitzua emateko ohiko materiala izan ez arren, matxurak daudenean edo errefortzuak behar direnean ohiko materiala ordezkatzeko erabiltzen dena.

Lizitatuzaileek zerbitzura bideratutako material oro deskribatu behar dute, eta behar diren datu guztiak eman behar dituzte material horri buruz ahal den gehiena jakiteko.

Esleipendunaren obligazioa izango da materialak zerbitzu-baldintza ezin hobean egoteko egin behar diren kontserbazio-, mantentze- eta konponketa-lanak egitea, hartara, GHKri bermatzeko aurreikusitako deskarga-fluxua bete ahal izango dela tratamendu-instalazioan.

Hondakinen tratamenduan erabiltzen den makineriak eta aritzen diren langileek dagozkion segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte, eta, hala eskatuz gero, aseguruak egin beharko dira, administrazio-klausula partikularren agirian zehazturikoaren arabera.

## **10 KONTROL-SISTEMAK**

GHKk zerbitzua ikuskatu eta zainduko du, eta egoki irizitako berrikuspenak egin ahal izango ditu, edozein lekutan eta edozein unetan.

Lizitatuzaileek gailu eraginkorrak izan beharko dituzte GHKk eskatutako datu guztiak garaiz eman ahal izateko (egindako lanak justifikatzeko datuak eta kontratatutako zerbitzuari egoki irizitako kontrolak egiteko behar diren datuak), eta proposatutako bitartekoek adierazitako emaitzak ematen dituztela ziurtatzeko.

Horrez gainera, komunikazio arin eta eraginkorra ziurtatzeko behar diren bitartekoak izan beharko ditu esleipendunak (telefonoa, mugikorra, posta elektronikoa... ).

Esleipendunak txosten bat aurkeztu beharko du hilero (N hilabeteko lehenengo astean), eta, txosten horretan, N-1 hilabetean egindako lana zehaztu beharko du. Txostenean, datu hauek jaso beharko dira, gutxienez:

- Instalazioan prozesatutako hondakinei buruzko datuak;
  - o Sarrera-eguna eta -ordua
  - o Ibilgailuaren matrikula
  - o Hondakinaren jatorria
  - o Pisua (gordina/tara/garbia)
  
- Prozesu-datuak;

Hileroko txosten horri erantsi beharko zaizkio pisaketen emate-agiriak eta GHKk esleipendunaren instalazioan egindako hondakin-sarrera guztien fakturak —GHKk izendatutako garraiolariak sinatuak— , garraio-kontratuka banakatuta.

## **11 KONTROL-SISTEMAK**

Interes publikoa babesteko, lehiaketa honetan aurkezten diren tratamendu-instalazioek kontuan izan behar dute, GHKrentzat, tona bakoitzeko garraio-kostuak ezingo duela izan 23 €-tik gorakoa. Alegia, tonako 23 €-ren bidex, kalkulatzen da Donostian dagoen San Markoko transferentzia-gunetik 200 kilometroko erradioa estaltzen dela, proposatutako tratamendu-instalazioraino.

Distantziaren erreferentzia hori eta jatorrizko puntu hori ezarri dira, hori baita GHKk kudeatzen duen hondar-frakzio gehiena biltzen den transferentzia-gunea. Hortaz, lehiaketatik kanpo geratuko dira tonako 23 €-ko kostua gainditzen duten kudeaketa-zentroak.